

1. ARIKETA_ 1 GAIA

Espainian oso hedatuta dago Komunikazio Zuzendariaren figura (Direnctor/a de Comunicación). Eta bada DIRCOM izeneko elkarte ere: Asociación de Directivos de Comunicación.

Publikazioen artean “**El estado de la Comunicación en España**” txostenaren bosgarren edizioa (2018) aurkituko duzu haien webgunean (www.dircom.org):

<https://envios.dircom.org/docs/ECE-2018.pdf>

Kontsultatu txosten hori, eta esan, argitalpen horren arabera:

- 1.- Zein den Espainiako komunikazio profesionalen profila (DIRCOM).
- 2.- Zein ikasketak dituzten komunikazio zuzendariak.
- 3.- Zer jarduera nagusi betetzen duten.
- 4.- Zer funtzio bete ohi dituzten.
- 5.- Zein den komunikazio zuzendarien posizioa enpresa barruan.

Ondoren soluzioak aurkituko dituzu.

ERANTZUNAK:

1.- Espainiako komunikazio profesionalen profila (DIRCOM).

-Seitik bat Komunikazio korporatiboaren arloko zuzendariak dira, edo agentzia bateko CEOak.

-%16,5, taldeko edo unitateko buruak dira eta % 14,7 taldeko kideak edo kuntsultoreak.

-Kontsulta egin zaienen %68,5k 10 urte baino gehiago daramate lanbidean.

-Inkesta Espainiako 17 komunitateko profesionalak bete zuten, eta gehienek (%54k) Madrilen lan egiten du, eta %14,5ek Bartzelonan.

-Komunikazioko profesionalen lautik hiruk baino gehiagok Komunikazio departamentu edo sailetan lan egiten dute; %18,3 agentzia, aholkularitza edo komunikazio edo harreman publikoetako kontsultoratan; %4,5 kontsultore freelance-ak dira.

-Profesionalen %56,1 emakumeak dira.

-Adinari dagokionez, ia erdiak 30-45 urte bitarte dituzte.

2.- Zein ikasketak dituzten komunikazio zuzendariak.

-Profesional gehienek (%55,8) masterra edo graduondokoren bat egin dute; gehienek Komunikazioaren arlokoa.

-Profesionalen %33,9k graduatuak edo lizentziatuak dira; gehienak kazetaritzan (%55,6) ikasketak dituzte, eta Publizitate eta harreman Publikoetan (%17,6).

3.- Komunikazio zuzendarien jarduera nagusiak:

Hauetxek dira jarduera nagusiak:

-Komunikazioa online eta sare sozialak (%62,5)

-Barne komunikazioa eta aldaketa-kudeaketa (%41,6)

-Gizarte erantzukizun korporatiboa, garapen iraunkorra (%27,1)

- Monitorizazioa, neurketak, ebaluazioa (%25,1)
- Marketina, markagintza, kontsumitzailearekin komunikazioa (%21,2)
- Eta abar

4.- Komunikazio zuzendarien funtzioak

Garrantziaren arabera: (lehena garrantzitsuenak)

- Komunikazioa oro har
- Kontsultoria, aholkularitza, coaching, bezero garrantzitsuen kontu-kudeaketa
- Medioekin harremanak
- Finantza-komunikazioa, inbertitzaileekin harremanak
- Marketina, marka, komunikazioa kontsumitzailearekin
- Gobernuarekin harremanak, gorabehera publikoak, lobbying-a.
- Eta abar

5.- Komunikazio zuzendarien posizioa enpresa barruan.

- Komunikazio zuzendaritza (%51,8)
- Zuzendaritza orokorra / zuzendaritza korporatiboa (%29, 2)
- Komunikazio korporatiboa (%7)
- Marketina (Produktu komunikazioa, markagintza) (%5,3)
- Harreman instituzionalak (%2,1)
- Harreman publikoak (%1,4)
- Medioekin harremanak (%1,4)
- Barne komunikazioa (%1,1)
- Ekitaldien antolakuntza eta protokoloa (%0,7)